- Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea (GKB)
- Zerbitzu Akademikoak

### TERMINOLOGIA:

PROZESUAREN HORNITZAILEAK			
SARRERAK	Zer jasotzen da?	Nork ematen du?	Zein prozesutatik?
	HUHEZI-ko Misioa, bisioa eta baloreak	Kontseilu Errektorea	Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planaren lanketa eta jarraipena
	Plan Estrategikoa		
	Gestio Plana	Zuzendaritza Kontseilua	
	Arau-marko akademikoa	Zerbitzu Akademikoak	---
	Heziketa-programak	Zerbitzu Akademikoak	Formazio-programen kalitatea bermatzeko prozesua

PROZESUAREN BEZEROAK				
IRTEERAK	Zer ematen da?	Nori?	Zein prozesuri?	Zehaztapenak
	Matrikulatutako ikasleak, sarrera-profilen arabera	Irakasleak	O.3.1. Gradu-ondoko programen kalitatea bermatzeko prozesua	---

## PROZESUAREN FLUXU-DIAGRAMA



### PROZESUKO JARDUEREN AZALPENA

Zkia.	Jarduera	Kudeatzailea	Deskribaketa
	Izena		
1	<b>Aztertu Formazio-programak eta unibertsitate-sistema, gizartearena eta profesionala</b>	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	Urtero, Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia berrikusi, eguneratu eta egoki baderitzo, hobetu egiten ditu formazio-programak. Horretarako, aintzat hartzen ditu araudi akademikoa, unibertsitatearen bisioa eta misioa, unibertsitatearen Plan estrategikoa eta Gestio Plana, Ingurune profesionalari buruzko informazioa, Gradu-ondoko Memoria eta Hezkuntza proiektua.
2	<b>Zehaztu ikasleen sarrera-profila</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Aurreko azterketa kontuan hartuz, Gradu-ondoko Koordinazio Batzordeak titulazio bakoitzeko ikasleen sarrera-profila zehazten du.
3	<b>Argitaratu ikasleen sarrera-profila</b>	Zerbitzu Akademikoak	Behin sarrera-profila onartuta eta Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaiaren aktan jasota, web gunean, katalogoetan...argitaratu.
4	<b>Osatu hautagaiak aukeratu, onartu eta matrikulatzeko prozedura</b>	Zerbitzu Akademikoak	Zerbitzu Akademikoak Gradu-ondoko Koordinatzailearekin batera, eta araudi akademikoa aintzat hartuz, hautagaiak aukeratu, onartu eta matrikulatzeko prozeduraosatzen du.
5	<b>Ezagutarazi hautagaia aukeratu, onartu eta matrikulatzeko prozedura</b>	Zerbitzu Akademikoak	Behin hautagaiak aukeratu, onartu eta matrikulatzeko prozedura onartuta eta Huhezi-ko Gradu-ondoko Mahaiko aktan jasota, web gunean, katalogoetan...ezagutarazi.
6	<b>Inskripzioa egin ikasleek eta egiaztatu gutxieneko baldintzak betetzen dituztela</b>	Zerbitzu Akademikoak	<a href="http://www.mondragon.edu">www.mondragon.edu</a> Web orrian inskripzioa egin.
7	<b>Argitaratu onartutakoen zerrenda</b>	Zerbitzu Akademikoak	Zerbitzu Akademikoak hautaketa prozesua burutu ondoren, fakultateko web gunean onartutakoen eta erreserban gelditzen direnen zerrenda argitaratzen du.
8	<b>Matrikula egin</b>	Zerbitzu Akademikoak	Matrikula fakultatean edo on-line modalitatearen bitartez egin beharko da. Beharrezko dokumentuak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurreko ikasketen ziurtagiri akademikoak.</li> <li>- Karnet tamainako argazkia.</li> <li>- NANaren fotokopia.</li> <li>- Matrikula ordaintzeko erabiliko den libreta edo kontu korrontearen fotokopia bat.</li> </ul>

### ADIERAZLEAK

Kodea	Adierazlea	Adierazlea lortzeko formula	Zenbatetik zenbatera jasotzen den	Iturburua eta jasotzearen arduraduna	Adierazlearen hartzailea	Azalpena
O3201	Ikasleen matrikulazioa	Matrikulatutako ikasle berri kopurua	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huhezi-ko Gradu-ondoko Mahaia	
O3202	Ikasleen inskripzioa	Inskribatutako ikasle kopurua	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huhezi-ko Gradu-ondoko Mahaia	
O3203	Eskainitako plazak		Urtero	Gradu-ondoko koordinatzailea	Huhezi-ko Gradu-ondoko Mahaia	
O3204	Eskainitako plazen ratioa		Urtero	Gradu-ondoko koordinatzailea	Huhezi-ko Gradu-ondoko Mahaia	

O3206	Masterreko ikasleak (estudiantes a tiempo completo)		Urtero	Zerbitzu akademikoak	Huhuezi-ko Gradu-ondoko Mahaia	
O3208	Masterreko ikasleak (estudiantes a tiempo parcial)		Urtero	Zerbitzu akademikoak	Huhuezi-ko Gradu-ondoko Mahaia	

### DOKUMENTUAK ETA ERREGISTROAK

Kodea	Deskribaketa	D/E*	Artxibatzearen arduraduna	Artxibatzeko euskarria	Ordenatzeko irizpidea	Artxibatze epea*
HO31403	Araudi akademikoa	D	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa (ARASA)	Data	Zehaztu gabe
HO32409	Ikasleen sarrera-profila	D	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa (ARASA)	Data	Zehaztu gabe
HO31302	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaiaren aktak	E	Gradu-ondoko Koordinatzailea	Papera / Informatikoa (ARASA)	Data	Zehaztu gabe
HO32410IZMB/IZMM/IZMI	Komunikazio-tresnak	D	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa (ARASA)	Data	Zehaztu gabe
HO32411	Hautaketa-, onarpen-eta matrikulazio-prozedurak	D	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa (ARASA)	Data	Zehaztu gabe
HO32412	Inskripzio orria	E	Zerbitzu Akademikoak	Papera	Data	Urtebete
HO32413	Matrikulazioaren dokumentazioa	D	Zerbitzu Akademikoak	Papera	IDAL (Ikaslearen identifikazioa) /NA	Zehaztu gabe
H232414IZMB/IZMM/IZMI	Formazio Programak	D	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa (ARASA)	Data	Zehaztu gabe

D/E\*: Dokumentua / Erregistroa

Artxibatze epea\*: bezeroaren, legearen edo araudiaren eskakizun zehatzak izan ezik

### PROZEDURAK:

Deskribaketa	D/E*	Fitxategiaren arduraduna	Non artxibatu	Zeren arabera antolatu	Artxibatze denbora*
O3.2 PR1 Hautagaiak aukeratu, onartu eta matrikulatzeko prozedura	D	Zerbitzu Akademikoak	Informatikoa	Data	Mugagabea

### PROZESUAREN ALDAKETAK:

#### Berrikuspen taula

Berrik.  
zbk.:

Onarpena:

Data:

Egindako berrikuspena:

00	Kontseilu Errektorea	2012-09-20	Hasierako edizioa
----	-------------------------	------------	-------------------

## 1.- PROZEDIMENDUAREN DEFINIZIOA

<b>HELBURUA</b>	<b>Hautagaiak era egokian aukeratu, onartu eta matrikulatzea.</b>
<b>APLIKAZIO ESPARRUA</b>	<b>Gradu-ondoko ikasleak</b>
<b>ARDURADUNA</b>	<b>Zerbitzu Akademikoak</b>

## 2.- PROZEDIMENDUAREN DESKRIBAPENA

### 1.- Ohiko epea:

#### **Inskripzioak: (on-line)**

- Inskripzio epea amaitu baino lehen ikasleak aurreko ikasketen titulua eta espediente akademikoa (konpultsatuak) IAZra (Ikasleen Arreta Zerbitzura) ekarri/bidali beharko ditu.
- Idazkaritzatik dagokion Graduondoko Koordinatzaileari inskripzio kopuruak bidaliko zaizkio. Koordinatzailea ikaslearekin harremanetan jarriko da zein ikasgaietan, edo zenbat ikasturtetan matrikulatzeko aholkatzeko, matrikulatzerako orduan ikasleak argi izan dezan, onartua izanez gero, zertan nahi/ahal duen matrikulatu.
- Ezarritako sarrera baldintzen eta plaza kopuruaren arabera Idazkaritza Akademikoa eta Gradu-ondoko koordinatzaileen artean ikasleen hautaketa egingo dute.
- Idazkaritza akademikoak onartuei jakinaraziko die inskripzio plataforman bere egoera aldatuz eta baita telefonoz ere.

#### **Matrikulak: (on-line)**

- Matrikula epeak: Ikaslek on-line egingo dute matrikula, horretarako xehetasunak inskripzioa egin duten plataforman bertan dituzte. Matrikula gordekinaren kopia bat ikaslearentzat izango da eta bestea jarraian zerrendatzen den dokumentazioarekin batera sinatuta bidali/ ekarri beharko du Ikasleen Arreta Zerbitzura: NAren fotokopia bat, argazki bat eta kontu korronteko 20 digituak azaltzen diren agiri baten fotokopia bat.

### 2.- Ez-ohiko epea:

#### **Inskripzioak: (on-line)**

- Plaza librerik geldituz gero, beste inskripzio epe bat zabalduko da. Epea amaitu baino lehen ikasleak aurreko ikasketen titulua eta espediente akademikoa (konpultsatuak) IAZra (Ikasleen Arreta Zerbitzura) ekarri/bidali beharko ditu.
- Koordinatzaileari inskripzio kopuruak bidaliko zaizkio. Koordinatzailea ikaslearekin harremanetan jarriko da zein ikasgaietan, edo zenbat ikasturtetan matrikulatzeko aholkatzeko, matrikulatzerako orduan ikasleak argi izan dezan, onartua izanez gero, zertan nahi/ahal duen matrikulatu.
- Onartuen jakinarazpena: ikasleak onartua izan edo ez inskripzioa egin zuen leku berean ikusi ahal izango du: <http://www.mondragon.edu/inskripzioak/baq>

**Matrikulak: (on-line)**

- Matrikula epeak: Matrikula gordekinaren kopia bat ikaslearentzat izango da eta bestea jarraian zerrendatzen den dokumentazioarekin batera sinatuta bidali/ ekarri beharko du Ikasleen Arreta Zerbitzura: NAren fotokopia bat, argazki bat eta kontu korronteko 20 digituak azaltzen diren agiri baten fotokopia bat.

3.- Ikasleak behin matrikula eginda, ikasturte bakoitzeko irailaren 30erarte izango du aukera matrikulan aldaketaren bat egiteko, [ldazkaritza.huhezi@mondragon.edu](mailto:ldazkaritza.huhezi@mondragon.edu) -ra e-mail bat bidalita egin beharko du eskaria. Gero Koordinatzailearekin egiaztatuko da ea aldaketa egitea posible den, horrela baldin bada, Idazkaritzatik matrikula ezeztatuko da eta ikasleak berriro egin beharko du matrikula.

4.- Ikasturte bakoitzeko urriaren 1a baino lehen Koordinatzaileari ikasleak behin-betiko matrikulatutako ikasgai eta ECTS kopuruak bidaliko zaizkio Idazkaritza Akademikotik.

**3.- DOKUMENTUAK ETA ERREGISTROAK**

Kodea	Deskribapena	D/E*	Nork artxibatu	Non artxibatu	Artxibatutako denbora*
HO32414	Ikasleen matrikula gordekina	D	Zerbitzu Akademikoak	Ikaslearen karpeta	Mugagabea

**ALDAKETAK:**

ERREBISIO TAULA			
Errebisioa :	Zeinek onartua:	Eguna:	Egindako aldaketa:
00	Kontseilu Errektorea	20012-09-20	Hasierako edizioa



### PROZESUAREN HELBURUA

Ikasleari laguntzea formazio-programan zehar, arreta pertsonalizatuaren bitartez, denbora guztian haren garapen sozial eta pertsonala bultzatuz, lanerako behar duen titulazioa lor dezan.

### PROZESUAREN IRISMENA

#### Hasiera:

Ikaslearen laguntza-beharra ikasten ari den bitartean eta matrikulatzen den momentutik.

#### Amaiera:

Ikasle Graduatua

### PROZESUARI BURUZKO ARGIBIDEAK

### PROZESUAREN ARDURADUNA

Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia (GOEP)

### PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENAK


- HUHEZIKo Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia (GOEP)
- Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea (GKB)
- Irakasleak (Tutoreak barne)
- Zerbitzu akademikoak.

### TERMINOLOGIA:

PROZESUAREN HORNITZAILEAK			
SARRERAK	Zer jasotzen da?	Nork ematen du?	Zein prozesutatik?
	HUHEZIKo Misioa, bisioa eta baloreak	Kontseilu Errektorea	Plan Estrategikoaren eta Gestio Planaren lanketa eta jarraipena
	Hezkuntza-proiektua	Zuzendaritza Kontseilua	Formazio-programen kalitatea bermatzea (azpi-prozesu honen aurretikoa)
	Ikasketa-plana		
	Matrikulatutako ikasleak, sarrera-profilen arabera	Zerbitzu Akademikoak	Profilen definizioa eta ikasleen onarpena
	Gogobetetze maila neurtzeko tresnen emaitzak	Irakasleak	Gogobetetze mailaren neurketa
Ikasleak			

PROZESUAREN BEZEROAK				
IRTEERAK	Zer ematen da?	Nori?	Zein prozesuri?	Zehaztapenak
		Titulu akademikoa	Ikaslea	---

## PROZESUAREN FLUXU-DIAGRAMA



## PROZESUKO JARDUEREN AZALPENA

Zkia.	Jarduera	Kudeatzailea	Deskribaketa
	Izena		
1	<b>Ikaslearen beharren azterketa (harrera/ laguntza/ tutoretza/ formazio integrala)</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Urtero, titulazio bakoitzeko Gradu-ondoko Koordinazio Batzordeak aurreko ekitaldian gauzatutako ekintzak aztertzen ditu, ikasleek eta irakasleek egindako balorazioekin batera. Formazio-programan izan daitezkeen aldaketak ere aztertzen dira, baldin eta ekintza horietan eragin badezakete.
2	<b>Ikaslearen harrera/ laguntza/ tutoretza/ formazio integralerako ekintzen diseinua</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Ikasle berrientzako harrera- eta laguntza-ekintzak zein tutoretza-ekintzak diseinatzea.
3	<b>Euskarri-materialak prestatzea ikasleak informatzeko</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea.	Ikasle berriei harrera egiteko materialak prestatzen dira (Harrera-gida edo "Harrera-plana", eta Hezkuntza-gida); goragoko mailetarako ikasleentzako Hezkuntza-gidak ere prestatzen dira. Gida horiek ikasleentzako oinarrizko informazioa jasotzen dute: programak, araudi akademikoa, fakultateari buruzko informazioa, organoen osaketa, zerbitzuak, egutegia... Tutoretza-ekintzak ikasleei materia guztietan ematen zaizkien Gidetan ageri dira.
4	<b>Informazioaren zabalkundea</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Matrikulatzean ikasle berriei fisikoki ematen zaizkie Gidak eta gainontzeko ikasleei posta elektronikoz bidaltzen zaizkie. Gida horietan, araudi akademikoa eguneratuta egon ohi da. Web-orrian eta Idazkaritza Birtualeko Intraneten ere informazio guztia dago eguneratuta.
5	<b>Orientazio-/tutoretza-ekintzak praktikan jarri eta ebaluatzea</b>	Tutoreak	Diseinatutako ekintzak gauzatu egiten dira eta baloratu; bai ikasleek, gogobetetze-inkestetan, bai irakasle/tutoreek ekintzei buruzko ebaluazio/balorazioetan.
6	<b>Ikasketa-jardueraren garapena</b>	Irakasleak	Ikasturte akademikoan zehar, ikasketa-jarduera garatzen da, ikaslearentzat diseinatutako prozeduraren bidez.
7	<b>Ikasleen aurrerapenen ebaluazioa</b>	Irakasleak	Irakasleek dagokien ikasgaia ebaluatzen dute; horretarako, lortu nahi diren ikasketa-emaizetan oinarritutako ebaluazio-sistema erabiltzen dute.
8	<b>Titulu akademikoa eskuratzea</b>	Zerbitzu Akademikoak	Ikasleak ikasketa-planean zehaztutako kreditu guztiak gainditzen dituzenean, Zerbitzu Akademikoak beharrezko gestioak egiten ditu ikasleak titulu akademikoa lor dezan.
9	<b>Ikasleen gogobetetze mailaren ebaluazioa eta azterketa</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea eta Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	Ikasturte akademikoa amaitzean, Gradu-ondoko koordinazio Batzordeak eta Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza mahaia ikasleentzako gogobetetze-datuak (datu horiek inkestean bidez eta "Jarraipen Taldeetan" ikasleekin egiten den jarraipenean jasotzen dira eta dagokion mahaian onartu).

**ADIERAZLEAK**

Kodea	Adierazlea	Adierazlea lortzeko formula	Zenbatetik zenbatera jasotzen den	Iturburua eta jasotzearen arduraduna	Adierazlearen hartzailea	Azalpena
O3302 O3318	Arrakasta-tasa	Gainditutako kreditu kopurua / aurkeztutako kreditu kopurua	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3303 O3316	Uzte-tasa	Matrikulatu gabeko ikasle kopurua (urtean bertan edo aurrekoetan)	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3304 O3321	Ikasle/tutore ratioa	Ikasle kopurua / tutore kopurua	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3305 O3319	Errendimendu tasa	Titulu batean gainditutako ETCS kopurua/tituluan matrikulatutako ETCS kopurua.	Urteko	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3306 O3315	Graduatze-tasa	Relación porcentual entre los estudiantes de una cohorte de entrada C que superan, en el tiempo provisto más un año, los créditos conducentes a un título y el número total equivalente de estudiantes de nuevo ingreso de la misma cohorte.	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3307 O3314	Eraginkortasun-tasa	Nº ECTS en los que debieron matricularse los estudiantes en una cohorte de graduación para superar un título (excluidos adaptados t reconocidos)//Total de créditos en los que efectivamente se han matriculado.	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3308 O3320	Aitortutako kredituak	Gradu-ondo bakoitzean aitortutako ECTS kopurua.	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3309 O3322	Aurkeztutako kredituak	Gradu-ondo bakoitzean aurkeztutako ECTS kopurua.	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3310 O3323	Gainditutako kredituak	Gradu bakoitzean gainditutako ECTS kopurua.	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3312 O3324	Matrikulatutako ECTS kopurua	Gradu bakoitzean matrikulatutako ECTS kopurua.	Urtero	Zerbitzu Akademikoak	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	

O3313 O3317	Ebaluazio Tasa	Relación porcentual entre el número de créditos presentados a evaluación por los estudiantes de un curso académico y el número total de créditos matriculados en dicho curso.	Urtero	Idazkari Akademikoa	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
----------------	----------------	---	--------	---------------------	--	--

## DOKUMENTUAK ETA ERREGISTROAK

Kodea	Deskribaketa	D/E*	Artxibatzearen arduraduna	Artxibatze euskarria	Ordenatzeko irizpidea	Artxibatze epea*
HO31301	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordearen akta (Orientazio Ekintzen Diseinua)	D	Gradu-ondoko Koordinatzailea	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO33415IZMB/IZMM/IZMI	Harrera- eta Orientazio-dokumentuak (Ikaslearen Gida, Harrera-Gida...)	D	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO33301	Master Bukaerako Lana(MBL)	E	Liburutegiko arduraduna	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO33416	Ebaluazio-aktak	E	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO20322	Ikaslearen espediente akademikoa	E	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO33417	Emandako titulu akademikoen erregistro liburua	E	Zerbitzu Akademikoak	Papera	Data	Zehaztu gabe
HO33420	Onarpen agiria/akta	E	Gradu-ondoko Koordinatzailea	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO31404IZMB/IZMM/IZMI	Ikasketa Plana	D	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HM20353	Asetasun inkestak	E	Titulazioko Koordinatzailea	Informatikoa (ARASA)	Data	Zehaztu gabe
HO33422	Titulu akademikoa	E	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO33423	Irakasleek egindako materien ebaluazioa	D	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe

D/E\*: Dokumentua / Erregistroa

Artxibatze epea\*: bezeroaren, legearen edo araudiaren eskakizun zehatzak izan ezik

## PROZEDURAK:

Deskribaketa	D/E*	Fitxategiaren arduraduna	Non artxibatu	Zeren arabera antolatu	Artxibatze denbora*
O3.3 PR1 Master amaierako proiektuaren defentsarako prozesua	D	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Arasa	Data	Zehaztu gabe

## PROZESUAREN ALDAKETAK:

### Berrikusketa-taula

Zenbatgarren      Onarpena:      Data:      Egindako berrikusketa:

**berrikusketa:**

00	Kontseilu Errektorea	2012-09-20	Hasierako edizioa
----	----------------------	------------	-------------------

## 1.- PROZEDIMENDUAREN DEFINIZIOA

<b>HELBURUA</b>	<b>Master bukaerako lanaren defentsarako prozedura egokia jarraitzea.</b>
<b>APLIKAZIO ESPARRUA</b>	<b>Gradu-ondoko ikasleak</b>
<b>ARDURADUNA</b>	<b>Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea</b>

## 2.- PROZEDIMENDUAREN DESKRIBAPENA

Master Bukaerako Lanaren defentsa epaimahai baten aurrean egingo da. Defentsak publikoak eta irekiak izango dira. Epaimahaia bi irakaslek osatuko dute.

Aurkezpenak eta defentsak ondorengo faseak ditu:

1. Fasea: Proiektuaren aurkezpena. Proiektuko tutoreak defentsaren antolaketaren (zein fase dituen) berri emango du eta epaimahaikideak aurkeztuko ditu. Ondoren, ikasleak, epaimahaiaren aurrean MBLean egindako ikaskuntza prozesuaren berri emango du eta era berean Proiektuaren alderdi inportanteenak laburtuko ditu. Haien artean, noski, lanaren emaitzak eta jarraitutako prozesuaren balorazioa.

Azalpenak ez du iraungo 30 minutu baino gehiago.

2. Fasea: Fase honetan bi azpi-aldi daude:

- a. azalpena eman ondoren, epaileen galdera eta komentarioen txanda
- b. azkenik, erantzunen txanda helduko da.

3. Fasea: deliberazioa. Bai ikaslea eta bai publikoa gelatik aterako dira eta epaimahaikideak eta tutorea geratuko dira gelan. Balorazioa epaimahaiak egiten du baina momentu honetan tutoreari informazioa eskatu diezaioke ikasleak egindako prozesuaren



inguruan. Balorazioa egiteko epaimahaiak beste orrialdean dagoen taulak jasotzen dituen irizpideak eta ponderazioa kontutan hartuko du.

4. Fasea: Balorazio eta kalifikazioaren berri eman. Epaimahaiak ikaslea eta publikoa (balego) gelara sartzera gonbidatuko ditu eta kalifikazioaren berri emango da. Puntuazioa 1 eta 10 artekoa izango da.

Oharra: Kalifikazioa, oro har, defentsa egunean bertan emango da. Horrela ez den kasuetan defentsa egin eta 48 ordu pasatu baino lehen eman beharko da.

Tribunalak kalifikazio-orri bat beteko du, epaimahaikideek sinatuta. Bertan agertuko dira:

- MBLaren titulua
- Ikaslearen identifikazioa
- Tutorearen identifikazioa
- Kalifikazioa

Proiektua gaindituta balego, liburutegian MBLa kontsultarako dokumentu izateko baimen orria aurkeztuko zaio ikasleari ados badago sinatzeko.

Kalifikazio-orria eta baimen orria Zerbitzu Akademikoetara emango du Tutoreak.

### 3.- DOKUMENTUAK ETA ERREGISTROAK

Kodea	Deskribapena	D/E*	Nork artxibatu	Non artxibatu	Nola antolatuta	Artxibatutako denbora*
HO33301	Master bukaerako lana	D	Zerbitzu akademikoak	Liburutegian	Data	Zehaztu gabe
HO33418	Kalifikazio orria	D	Zerbitzu akademikoak	Zerbitzu akademikoak	Data	Zehaztu gabe
HO33419	Baimen orria	D	Zerbitzu akademikoak	Zerbitzu akademikoak	Data	Zehaztu gabe

### ALDAKETAK:

#### ERREBISIO TAULA

Errebisioa :	Zeinek onartua:	Eguna:	Egindako aldaketa:
00		2012-09-20	Hasierako edizioa



HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEK  
FAKULTATEA  
FACULTAD DE  
HUMANIDADES Y  
CIENCIAS DE LA EDUCACION

O3.3-PR01 PROZEDURA

Rev.: 0

***Master bukaerako lanaren defentsarako  
prozedura***

Eguna:  
2012/09/20  
Orria 3tik 3


DEFINIZIOA

**PROZESUAREN HELBURUA**

Gradu-ondoko ikasle-trukea bultzatzea eta kudeatzea nazioartean, haien formazioa modu integralean osatzeko.

**PROZESUAREN IRISMENA**

**Hasiera:**

HUHEZlren interesa ikasleen arteko trukea bultzatzeko

**Amaiera:**

Egindako trukearen onarpena beraien ikasketa espedientean.

**PROZESUARI BURUZKO ARGIBIDEAK**

**PROZESUAREN ARDURADUNA**

Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna

**PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENAK**

- MUko Kontseilu Errektorea
- HUHEZlko Kontseilu Errektorea
- Zuzendaritza Kontseilua
- Nazioartekotza Batzordea
- Titulazioko Gradu-ondoko Mahaia (TGM)
- Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia (GOEP)
- Zerbitzu Akademikoak
- Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna

**TERMINOLOGIA:**


**Ikasle-trukerako programak:** izendapen honen baitan ondoko programak biltzen dira:

- ❖ Erasmus egonaldi akademikoak (HUHEZlko ikasleak eta atzerritarrak)
- ❖ Praktikak European eta Amerikan (HUHEZlko ikasleak)
- ❖ Erasmus ez diren egonaldi akademikoak

PROZESUAREN HORNITZAILEAK			
SARRERAK	Zer jasotzen da?	Nork ematen du?	Zein prozesutatik?
	Ikasketa Plana	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	Formazio-programen kalitatea bermatzea (azpi-prozesu honen aurretikoa)
	Gestio Plana	Zuzendaritza Kontseilua	Plan Estrategikoaren eta Gestio Planaren lanketa eta jarraipena
	Gogobetetze maila neurtzeko tresnen emaitzak	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna Ikasleak	Gogobetetze mailaren neurketa
	Araudi akademikoa	Zerbitzu Akademikoak	Dokumentuen kudeaketarako prozesua Araudi akademikoa landu eta onartzeko prozedura

PROZESUAREN BEZEROAK				
IRTEERAK	Zer ematen da?	Nori?	Zein prozesuri?	Zehaztapenak
	Truke-programaren ebaluazioa.	Ikasleak Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	---	---

## PROZESUAREN FLUXU-DIAGRAMA



## PROZESUKO JARDUEREN AZALPENA

Zkia.	Jarduera	Kudeatzailea	Deskribaketa
	Izena		
1	<b>Ikasleen mugikortasunari dagokion helburua zehaztu</b>	Zuzendaritza Kontseilua	Aurreko trukaketa-ekintzatan jasotako gogobetetze mailari buruzko datuak, kudeaketa plana eta araudi akademikoa eta ikasketa-plana aintzat hartuz, Zuzendaritza Kontseiluak ikasleen mugikortasunari dagokion helburua zehazten du.
2	<b>Aztertu mugikortasuna kudeatzeko informazioa</b>	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Behin Kontseilu Errektoreak mugikortasun plana onartuta, Nazioarteko Harremanetarako Arduradunak mugikortasuna kudeatzeko informazioa (araudiak, deialdiak, e.a.) aztertzen ditu.
3	<b>Itunak edo hitzarmenak adostu beste unibertsitate batzuekin</b>	Huhezi /MU Kontseilu Errektorea	Beste unibertsitate batzuekin itunak adostu eta izenpetzen dira. Hitzarmen horien kopia bat gordetzen da fakultatean eta originala Errektoretzan.
4	<b>Mugikortasun jarduerak planifikatu</b>	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Alde biek hitzarmenak izenpetu ondoren, Nazioarteko Harremanetarako Arduradunak mugikortasun jarduerak planifikatzen ditu.
5	<b>Prestatu mugikortasun – programei buruzko materiala</b>	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaiak planifikazioa onartu ostean, Nazioarteko Harremanetarako Arduradunak mugikortasun-programei buruzko materiala prestatzen du mugikortasun-programei buruzko materiala jasotzen duen dokumentazioa sortuz.
6	<b>Zabaldtu mugikortasun-programei buruzko materiala, parte hartzeko baldintzak barne</b>	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Mugikortasun-programei buruzko materiala zabaltzeko Nazioarteko Harremanetarako Arduradunak mugikortasun-programei buruzko esku-liburuak prestatzen ditu.
7	<b>Kudeatu ikasleek mugikortasun-programetan parte-hartzekoizapideak</b>	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna ikasleek mugikortasun-programetan parte-hartzeko izapideak kudeatzeaz arduratzen da, mugikortasun-izapideak kudeatzeko prozeduraren bitartez.
8	<b>Garatu ikasleari laguntzeko jarduerak</b>	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Ikaslea orientatzeko eta irakaskuntza garatzeko prozesuaren bitartez, Nazioarteko Harremanetarako Arduradunak ikasleari laguntzeko jarduerak aurrera eramaten ditu.
9	<b>Jarraipena egin kudeaketako mugikortasun-programei</b>	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Nazioarteko Harremanetarako Arduradunak mugikortasun-programei buruzko jarraipena egiten du.
10	<b>Onarpen akademikoa eman ikasleek egindako ikasketei /jardueri</b>	Zerbitzu Akademikoak	Idazkaritza Akademikotik ikasleek egindako ikasketei/jardueri onarpen akademikoa ematen zaie eta ikasketen/jardueren onarpen akademikoaren gaineko dokumentazioa sortzen da.
11	<b>Neurtu eta aztertu mugikortasun-ekintzen gaineko gogobetetze maila</b>	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Ikasleen gogobetetze maila neurtu eta jasotako emaitzei jarraipena egin eta horiek aztertzeko prozesua jartzen du martxan Nazioarteko Harremanetarako Arduradunak. Horretarako, ikasleek asetasan inkestak betetzen dituzte eta segimendu bilerak egiten dira beraiekin.
12	<b>Berrikusi, aldatu eta hobetu mugikortasun-ekintzak</b>	Gradu-ondoko Mahaia	Emaitzak aztertu ondoren, mugikortasun-ekintzak berrikusi, aldatu eta hobetzen dira mugikortasun-programei buruzko dokumentazioaren bertsio berriak sortuz.

## ADIERAZLEAK

Kodea	Adierazlea	Adierazlea lortzeko formula	Zenbatetik zenbatera jasotzen den	Iturburu eta jasotzearen arduraduna	Adierazlearen hartzailea	Azalpena
O3401	Ikasle-trukea	Atzerritik jasotako ikasle kopurua	Urtero	Nazioarteko Arduraduna	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3402		Atzerrira bidalitako ikasle kopurua				
O3403	MU Materreko ikasleak mugikortasun programan		Urtero	Zerbitzu akademikoak	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3404	Beste unibertsitateekin elkarlanerako Master programa nazioanl kopurua		Urtero	Nazioarteko Arduraduna	Zuzendaritza Kontseilua	

## DOKUMENTUAK ETA ERREGISTROAK

Kodea	Deskribaketa	D/E*	Artxibatzearen arduraduna	Artxibatzeko euskarria	Ordenatzeko irizpidea	Artxibatze epea*
HE10346	Gestio Planaren jarraipena	D	Zuzendaritza Idazkaria	Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO34420	Truke Programetarako hitzarmenak	D	MUko errektoretza	Papera	Data	Zehaztu gabe
HO31302	Huhezi-ko Gradu-ondok eta Etengabeko Prestakuntza Mahaiko aktak(Mugikortasun Ekintzen Planifikazioa eta Ebaluazioa)	D	Gradu-ondoko Koordinatzailea	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO34421	Mugikortasun Programei buruzko informazioa jasotzen duen dokumentazioa	D	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO34422	Mugikortasun Programei buruzko informazioa eskaintzen duten esku-orriak	D	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO34423	Mugikortasun izapideak kudeatzeko prozedura	D	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO31403	Ikasketen/jardueren aitoren akademikoari buruzko dokumentazioa (Araudi akademikoa)	D	Zerbitzu Akademikoak	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO31301	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	E	Gradu-ondoko Koordinatzailea	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HE10339	Gestio Plana	D/E	Zuzendaritza Idazkaria	Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO34429	Aurreko Trukaketa ekintzak (jasotako gogobetetze mailari buruzko datuak)	D	Zerbitzu akademikoak	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe

D/E\*: Dokumentua / Erregistroa

Artxibatze epea\*: bezeroaren, legearen edo araudiaren eskakizun zehatzak izan ezik

## PROZEDURAK:

Deskribaketa	D/ E*	Fitxategiaren arduraduna	Non artxibat u	Zeren arabera antolatu	Artxibatze denbora*
O2.4 PR1 Mugikortasuna kudeatzeko prozedura.	D	Nazioarteko Harremanetarako arduraduna	Informati koa	Data	Mugagabea

## ALDAKETAK:

Berrikuspen taula			
Berrik. Zbk.:	Onarpena:	Data:	Egindako berrikuspena:
00	Kontseilu Errektorea	2012-09-20	Hasierako edizioa



## 1.- PROZEDURAREN DEFINIZIOA

<b>HELBURUA</b>	Ikasleek mugikortasun-programetan parte hartzeko izapideak kudeatzea.
<b>APLIKAZIO ESPARRUA</b>	Titulazio guztiak
<b>ARDURADUNA</b>	Nazioarteko Harremanetarako Arduraduna

## 2.- PROZEDURAREN DESKRIBAKETA

**2.1.-** Ikasleak egonaldia egiteko eskaera orria eta hizkuntza (ingelesa) gaitasun agiria otsailaren 20rako entregatu beharko dizkio Nazioarteko Harreman Buruari. Eskaera gustukoaren dituen aukeren arabera ordenatu behar du eta kontuan izan ikasturteko deialdi bakarra egoten dela. Otsailaren bukaera aldera, behar duenak Hizkuntza Frogak egiten ditu.

**2.2.-** Eskaera guztiak aztertu ondoren, martxoaren lehenengo astean HUHEZIKo Nazioarteko Batzordeak atzerrian egonaldia egingo duten ikasleak aukeratzen ditu.

**2.3.-** Aukeratua izan bada, Nazioarteko Burua berehala jarriko da ikaslearekin harremanetan atzerriko ikasketen inguruan orientatzeko eta atzerriko unibertsitateko eskaera orria (Application Form) bete eta bidaltzeko. Ostaturako eskaera orria ere une honetan egiten da.

**2.4.-** Azken hitza atzerriko unibertsitateak du, bertan izan behar da ikaslea onartua.

**2.5.-**Ikaslea Atzerriko Unibertsitatean onartzen badute, Ikasle Kontratua edo Learning Agreement dokumentua sinatzen da. Kontratu honetan ikasleak atzerrian egin behar dituen kurtso, ikasgai edo moduluak agertzen dira. Bertan zehazten dena betetzea ezinbestekoa da itzultzean kredituen aitormena egin ahal izateko.

**2.6.-** Joan aurretik ikasleak Erasmus kontratua sinatu beharko du Mondragon Unibertsitateko Errektoretzan. Bertatik deituko diote eta ondorengo dokumentazioa prestatu behar du:

- NAN edo pasaportearen fotokopia.
- Argazkia, nortasun-agiri tamainakoa.
- Helbidea.
- Bekak ordaintzeko kontu korrontearen zenbakia.
- Familiarren (guraso eta anaia arrebak) izen eta NAN zenbakiak.
- Europako Osasun Txartelaren fotokopia.
- Erasmus egonaldia egin behar den ikasturteko matrikula agiria.

## Mugikortasuna kudeatzeko prozedura

2.7.- Destinoko Unibertsitatean dagokion kurtsoetan matrikula egin beharko du Nazioarteko Harremanen sailak adieraziko dion eran, baina ez du matrikula tasarik ordainduko han. Hala ere helburuko unibertsitateak diru-kantitate txiki bat eskatu ahal izango dio aseguruaren edo hainbat materialen erabileraren gastuei aurre egiteko.

### 3.- DOKUMENTUAK ETA ERREGISTROAK

Kodea	Deskribaketa	D/E*	Fitxategiaren arduraduna	Non artxibatu	Zeren arabera antolatu	Artxibatze denbora*
HO34424	Eskaera orria	D	Nazioarteko Harreman Arduraduna	Paperean/ Informatikoa	Data	Mugagabea
HO34425	Application Form	D	Nazioarteko Harreman Arduraduna	Paperean/ Informatikoa	Data	Mugagabea
HO34426	Ikasle kontratua (Learning agreement)	D	Nazioarteko Harreman Arduraduna	Paperean/ Informatikoa	Data	Mugagabea
HO34427	Erasmus kontratua	D	Nazioarteko Harreman Arduraduna	Paperean/ Informatikoa	Data	Mugagabea

### ALDAKETAK:

#### Berrikuspen taula


Berrikuspena:	Onarpena:	Data:	Egindako berrikuspena:
00	Kontseilu Errektorea	12-09-20	Hasierako edizioa

<b>DEFINIZIOA</b>	<b>PROZESUAREN HELBURUA</b> Gradu-ondoko azken ikasturteko ikasleei jakinaraztea zein aukera duten ikasketekin jarraitzeko edo/eta lan merkatuan sartzeko.	
	<b>PROZESUAREN IRISMENA</b> <b>Hasiera:</b> Orientazio beharra araututako formazioaren azken etapan  <b>Amaiera:</b> Ikasleak beharrezko informazioa lortzea bere garapen pertsonal eta profesionalarekin jarraitzeko	<b>PROZESUARI BURUZKO ARGIBIDEAK</b>
	<b>PROZESUAREN ARDURADUNA</b> Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
	<b>PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENAK</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia (GOEP)</li> <li>• Gradu-ondoko Koordinatzailea (GK)</li> <li>• Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea (GKB)</li> <li>• Titulazioko Koordinatzailea</li> <li>• Irakasleak (Tutoreak barne)</li> <li>• Titulazioko Koordinazio Organoa (TKO)</li> </ul>	
	<b>TERMINOLOGIA:</b> <b>Orientazio profesionala:</b> bere baitan hartzen du, lan merkatuari buruzko informazioaz gain, ikasleei eskaintzen zaien informazioa ikasketekin jarraitu nahi badute.	

PROZESUAREN HORNITZAILEAK			
SARRERAK	Zer jasotzen da?	Nork ematen du?	Zein prozesutatik?
	Ikasketa Plana	Idazkaritza Akademikoa	Formazio-programen kalitatea bermatzea
	Ingurune profesionalari buruzko informazioa	Titulazioko Koordinatzailea	---
	Aurretik egindako orientazio-ekintzei buruzko informazioa	Titulazioko Koordinatzailea	Gogobetetze mailaren neurketa

PROZESUAREN BEZEROAK				
IRTEERAK	Zer ematen da?	Nori?	Zein prozesuri?	Zehaztapenak
	Informazio egokia erabakiak hartu ahal izateko arlo profesionalean edo ikasketekin jarraitzeko	Ikasleak	---	---

## PROZESUAREN FLUXU-DIAGRAMA



## PROZESUKO JARDUEREN AZALPENA

Zkia.	Jarduera	Kudeatzailea	Deskribaketa
	Izena		
1	<b>Aztertu titulazioarekin lotutako lan-merkatuari buruzko informazioa</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Ikasketa-planaren helburuak, irteerako ikasleen profila eta ingurune profesionalari buruzko informazioa erabiliz, titulazioarekin lotutako lan-merkatuari buruzko informazioa aztertzen da.
2	<b>Zehaztu lanerako orientaziorako ekintzak</b>	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	Egindako azterketa eta aurretik garatutako orientazio-ekintzei buruzko informazioa aintzat hartuz, orientaziorako ekintzak zehazten dira.
3	<b>Planifikatu orientazio-ekintzak</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Behin orientazio ekintzak onartuta ekintza horien planifikazioa egiten da eta Gradu-ondoko Koordinazio Batzordearen aktan jasotzen da (orientazio-ekintzen onartutako planifikazioa).
4	<b>Prestatu orientazio-ekintzei buruz informatzeko materiala</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Orientazio-ekintzei buruzko informazioa helarazteko materiala prestatzen da orientazio-ekintzei buruzko informazioa jasotzen duen dokumentazioa sortuz.
5	<b>Zabaldu orientazioei buruzko informazioa</b>	Gradu-ondoko Koordinatzaileak	Orientazio-ekintzak jasotzen dituen dokumentazio informatikoa ikasle guztiei bidaltzen zaie koordinatzaileen/tutoreen bitartez.
6	<b>Garatu planifikatutako ekintzak</b>	Irakasleak	Irakasleek planifikatutako ekintzak garatzen dituzte.
7	<b>Neurtu eta aztertu orientazio-ekintzekin lotutako gogobetetze maila</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Orientazio-ekintzak garatu ondoren, ikasleek gogobetetze maila neurtzeko inkestak betetzen dituzte eta Gradu-ondoko Koordinazio Batzordeak jasotako emaitzen balorazioa egiten du.
8	<b>Berrikusi, aldatu eta hobetu orientazio-ekintzak</b>	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	Aipatu balorazioa egin ondoren, orientazio-ekintzen berrikuspena, aldaketa eta hobekuntza ekintzak zehazten dira eta orientazio-ekintzei buruzko dokumentazioaren bertsio berriak garatzen dira.

### ADIERAZLEAK

Kodea	Adierazlea	Adierazlea lortzeko formula	Zenbatetik zenbatera jasotzen den	Iturburua eta jasotzearen arduraduna	Adierazlearen hartzailea	Azalpena
O3501	Enplegagarritasun tasa	Lanean hasitako ikasle kopurua / promoziotik ateratako ikasle kopurua	Urtero	Gradu-ondoko koordinatzailea	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3505	Orientazio saiokak	Orientaziorako erabilitako ordu kopurua	Urtero	Gradu-ondoko koordinatzailea	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3502		Orientazio saioetara joandako ikasle kopurua	Urtero	Gradu-ondoko koordinatzailea	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3506	Huhezin ikasten jarraitzen duten ikasleak	Ikasten jarraitzen duten ikasle kopurua / promoziotik ateratako ikasle kopurua	Urtero	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3503	Langabezia-tasa		Urtero	Huheziko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza mahaiko koordinatzailea	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	
O3504	Ahokatutako enpleguaren %a		Urtero	Huheziko Gradu-ondoko mahaiko koordinatzailea	Huhezi-ko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia	

### DOKUMENTUAK ETA ERREGISTROAK

Kodea	Deskribaketa	D/E*	Artxibatzearen arduraduna	Artxibatzeko euskarria	Ordenatzeko irizpidea	Artxibatze epea*
HO31301	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordearen akta	D	Gradu-ondoko Koordinatzailea	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe
HO35428	Orientazio-ekintzei buruzko informazioa jasotzen duen dokumentazioa	D	Titulazioko Koordinatzailea	Papera / Informatikoa	Data	Zehaztu gabe

D/E\*: Dokumentua / Erregistroa

Artxibatze epea\*: bezeroaren, legearen edo araudiaren eskakizun zehatzak izan ezik

### PROZEDURAK:

Deskribaketa	D/E*	Fitxategiaren arduraduna	Non artxibatu	Zeren arabera antolatu	Artxibatze denbora*

### ALDAKETAK:

**Berrikuspen taula**

Berrik. Zbk.:	Onarpena:	Data:	Egindako berrikuspena:
00	Kontseilu Errektorea	2012-09-20	Hasierako edizioa




<b>DEFINIZIOA</b>	<b>PROZESUAREN HELBURUA</b> Ikasleen formazioa bultzatu eta osatzea, praktiken bidez. Praktikak ikasleen formazioarekin lotutako jarduera duten erakundeetan egingo dituzte; jarduera horrek bat etorri beharko du titulazioaren profil profesionalarekin.	
	<b>PROZESUAREN IRISMENA</b> <b>Hasiera:</b> Ikasketa-planetan zehaztutako praktika-aldia betetzeko beharra  <b>Amaiera:</b> Kanpoan egindako praktikak ebaluatuta dituzten ikasleak	<b>PROZESUARI BURUZKO ARGIBIDEAK</b> Prozesu honetan jorratutako praktikek bakarrik egiten diete erreferentzia Gradu-ondoko titulazioetako Ikasketa-planei dagozkien nahitaezko praktikei.
	<b>PROZESUAREN ARDURADUNA</b> Praktiken Arduradunak	
	<b>PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENAK</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontseilu Errektorea</li> <li>• Zuzendaritza Kontseilua</li> <li>• HUHEZIkko Gradu-ondo eta Etengabeko Prestakuntza Mahaia (GOEP)</li> <li>• Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea (GKB)</li> <li>• Praktiken Arduradunak</li> <li>• Administrazio Saila</li> <li>• Zerbitzu Akademikoak</li> </ul>	
	<b>TERMINOLOGIA:</b>	

PROZESUAREN HORNITZAILEAK			
SARRERAK	Zer jasotzen da?	Nork ematen du?	Zein prozesutatik?
	Ikasketa-planak	Zerbitzu Akademikoak	Formazio-programen kalitatea bermatzeko prozesua
	Ingurune profesionalari buruzko informazioa	Praktiken Arduradunak	---
	Aurreko ikasturteetan egindako praktikei buruzko informazioa		Gogobetetze mailaren neurketa

PROZESUAREN BEZEROAK				
IRTEERAK	Zer ematen da?	Nori?	Zein prozesuri?	Zehaztapenak
		Praktika-aldiaren ebaluazioa	Ikasleak	---

## PROZESUAREN FLUXU-DIAGRAMA



### PROZESUKO JARDUEREN AZALPENA

Zkia.	Jarduera	Kudeatzailea	Deskribaketa
	Izena		
1	<b>Praktiken gutxieneko eduki eta betebeharrak zehaztea</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Ikasleek egiten dituzten praktikak Heziketa-programaren zutoinetako bat da. Hortaz, praktiketarako edukiak eta betebeharrak definitzeko, beharrezkoa da aurretik hausnartzea, eta etorkizuneko irakaslearen <b>profil profesionala</b> definitzea. Profil hori osatutakoan, ikasleek egiten dituzten praktikak bideratuta daude profil hirukoitz horren formazio teoriko eta praktikora, eta horixe da zutabe nagusia hezkuntza eta formaziorako erakundeetan egiten diren praktiketan. Informazio hori jasota geratzen da "Praktiken Programa" izeneko dokumentuan.
2	<b>Praktikak enpresetan edo erakundeetan egiteko aukerak bilatzea</b>	Praktiken Arduradunak	Profil profesionala, helburuak eta haiek lortzeko edukiak diseinatutakoan, praktiken arduradunak landa-lana egiten du; haren bitartez, Fakultateak diseinatutako praktiken profil profesionalei eta helburuei egokitzen zaizkien zentro eta erakundeak identifikatzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoak, estatuan eta atzerrian.
3	<b>Enpresekin edo erakundeekin lankidetzatza-itunak adostea</b>	Praktiken Arduradunak	Praktiketarako eskola- eta erakunde-mapa hori zehaztutakoan, Fakultateko praktiken arduraduna kasuan kasuko erakundeekin jartzen da harremanean: eskola publikoak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, itunpeko ikastetxe pribatuak, zentro bakoitzeko eskola-zuzendaritza, eta erakunde pribatu zehatzak (ASPACE, CRI, Down Syndrome Fundazioa...), e.a. Bertan, gure praktikak aurkezten ditu, eta gure ikasleen praktikak zentro horietan egin daitezkeen aztertzen. Dauden aukerak azaldu eta negoziatu ondoren, <b>hitzarmenak</b> izenpetzen dira, EAEn, estatuan zein atzerrian. Ikasleen mugikortasuna erakunde nazionaletan zein nazioartekoetan irekita dago espezialitate guztietako ikasleei.
4	<b>Praktiken planifikazioa</b>	Praktiken Arduradunak	Praktiken planifikazioa bikoitza da: -Batetik, ikuspegi pedagogiko eta didaktikotik, profesional-talde bat dago, eta hark diseinatzen ditu ikasleek landu beharreko helburu eta edukiak, bai praktikek dirauten bitartean, bai aurretik, bai ostean. -Bestetik, ikuspuntu administratibotik, ikasleek praktiketarako zentroak aukeratzeko epe bat dute. <b>Eskaeren zerrenda</b> osatutakoan, erakundeetara eskaerak bideratzen dira eta beharrezko dokumentazioa bidaltzen zaizkie praktiken ezaugarriak ondo bideratzeko. Kontaktatu horien bitartez gure eskaerak egokiak diren ala ez jakiten dugu.
5	<b>Praktika bakoitzaren tutoreak izendatzea</b>	Gradu-ondoko Koordinazio Batzordea	Praktiketako tutoreak izendatzea "Praktiken Programarekin" dago lotuta. Tutore bakoitzak bere kargu hartzen du ikasle talde bat, eta haien jarraipena eta orientazio-lanak egingo ditu, praktiken aurretik, ondoren eta haiek dirauten bitartean.
6	<b>Materiala prestatzea ikasleak informatzeko praktikei eta haien baldintzei buruz</b>	Praktiken Arduradunak	Materiala askoren artean prestatzen da. Alde batetik, moduluetako arduradunek ezartzen dituzte praktiken helburuak, edukiak, estrategiak, tresnak eta ebaluazio-irizpideak. Bestetik, praktika-taldeak administratiborako eta informaziorako dokumentazioa prestatzen du, ikaslea eta praktiketako erakundea orientatzeko praktiken logistikari dagokionez (ordutegiak, kontaktuak, egutegiak, e.a.)
7	<b>Kanpoko praktiken inguruko informazioaren zabalkundea</b>	Praktiken Arduradunak	Praktiken lehen zabalkundea irailan hasiko litzatekeen ikasturtearen aurrekoa da. Praktiken arduradunak bilera egiten du ikasle guztiekin, eta epea irekitzen da ikasle bakoitzak praktiketarako lekua aukeratzeko. Ondoren, praktiketarako material espezifikoak diseinatutakoan, sare informatikoan gordetzen da ikasleak bere esku izan dezan. Material espezifiko horietan praktiken ezaugarriak jasotzen dira.
8	<b>Harrera-ekintzak gauzatzea ikaslea orientatzeko praktiketan</b>	Praktiken Arduradunak	Aipatutako praktiken diseinu modularren bidez, ikasle bakoitzak badakin zeintzuk izango diren praktiken faseak, helburuak eta bere betebeharrak. Praktikak ahalik eta ondoen gauzatzeko, ikasle bakoitzak tutore bat izango du. Hark emango dizkio fase bakoitzaren inguruko argibideak eta lituzkeen zalantzak argituko. Hala ere, praktiken arduradun gorenak jarraipena egingo die harrera-ekintza horietan egon litezkeen ahulguneei.

Jarduera		Kudeatzailea	Deskribaketa
9	Praktiketara bideratutako instalazio, ekipamendu edo/eta baliabideen berrikusketa	Praktiken Arduradunak	Praktiken garapenaren ebaluazioa jarraitua da; ez bakarrik praktiken curriculumari berari dagokionez, baita praktiketarako zentroekiko administrazio eta elkarlanaren kudeaketan ere. Beharrezkoa balitz, bisitak egingo lirateke praktiketako entitateek (enpresek/erakundeek) kudeatzen dituzten baliabideak egokiak direla egiaztatzeko.
10	Praktiken kudeaketa administratiboa	Administrazioa	Kudeaketa administratiboa zutabe garrantzitsuenetakoa da praktiken kalitate ona lortzeko. Kudeaketa hori ez da oinarritzen soilik praktika-eskaerak eta dokumentazioa bideratzean; bertan finkatzen dira erakundeekiko harremanak, eta harreman horiek, gehienetan, praktika-aldietarako hitzarmenetan amaitzen dira.
11	Praktiken garapena, jarraipena eta ebaluazioa	Praktiken Arduradunak	Praktiken garapena, jarraipena eta ebaluazioa praktiketako tutoreek egiten dituzte, praktiken arduradunaren gidaritzapean. Hau da, praktiketako irakastetxeko tutoreak eta Fakultateko tutoreak. Praktikek dirauten bitartean, telefono bidezko hartu-emana arina da tutoreen artean. Haren bitartez, izan litezkeen gorabeherak antzematen dira eta aurre hartu ahal izaten zaie. Praktikak amaitutakoan, zentroko tutoreak <b>ebaluazio-fitxa</b> betetzen du. Bertan, ikaslea ebaluatzen du batez ere, baina baita Fakultateko tutorearekiko eta praktiken arduradunarekiko komunikazioa.
12	Praktiken onarpena curriculumerako kreditu bezala	Zerbitzu Akademikoak	Entitateko tutoreak <b>ebaluazio-fitxan</b> jasotako informazioarekin, eta praktiken arduradunak duen informazioarekin, kuantitatiboki balioesten da praktika-aldia, eta ikasleari dagokion kreditu kopurua onartzen zaio.
13	Praktikekiko gogobetetze mailaren neurketa eta azterketa	Praktiken Arduradunak	Praktiken gogobetetzea neurtu eta aztertzeari dagokionez, ekintza bikoitza da: -Batetik, informazioa <b>ebaluazio-fitxan</b> jasotzen da; bertan, itemen bidez, ebaluatu egiten dira ikasleek egindako praktikak. Hori guztia praktiketako enpresako edo erakundeko tutoreak ematen du. -Bestalde, ikasle bakoitzak <b>autoebaluazio-fitxa</b> dauka. Bertan, badago atal bat praktiken antolaketari buruzko gogobetetze-maila neurtzeko.
